

UDALEK KIROL ALORREAN DITUZTEN ESKUMENAK

**Kirolak eskumenen arloan Euskadin
duen egoera. Gogoetak eta
proposamenak**

SARRERA

KAITek (Kirolaren Kudeatzaileen Euskal Elkarteak), Vitoria-Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiak eta Kirolaren Euskal Eskolak (Eusko Jaurlaritza) antolatuta Gasteizen 2018ko otsailaren 15ean egindako Udalerrietako Kirol Politiken XI. Topaketan barnean, *World Café* bat ere izan zen, Euskadiko kirolaren eskumen-alorra aztertzeko helburuarekin. Dinamika horretan, parte-hartzaileek arlo horretan hobekuntzak edo aldaketak proposatzeko aukera izan zuten, Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legea berrikuspenari begira.

**LA CIUDADANÍA
COMO CENTRO
DE LA GESTIÓN
PÚBLICA**
XI ENCUENTROS DE
POLÍTICAS DEPORTIVAS
EN LOS MUNICIPIOS

**HERRITARRAK
KUDEAKETA
PUBLIKOAREN
ERDIGUNE GISA**
KIROL POLITIKAK
UDALERRIETAN.
XI. TOPAKETAK

15 de febrero de 2018
Palacio Europa

2018ko otsailaren 15a
Europa jauregia

Vitoria - Gasteiz



Txosten honek bertan landutako edukiak jasotzen ditu: Juantxo Landaberea abokatuak emandako azalpena eta lan-mahaletako parte-hartzaileek landutako proposamenak.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KIROLAREN 14/1998 LEGEAREN BERRIKUSPENA: UDALEN ETA GAINERAKO ERAKUNDEEN ESKUMENAK

Juantxo Landaberea

Adierazi behar da Juantxo Landabereak *World Caf e*an azaldutako iritziek ez dutela Jaurlaritzaren jarrera ordeztzen, ezta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzarena ere: iritziok erabat pertsonalak dira. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak ez du adierazi oraindik zer jarrera duen gai honi dagokionez.

Azalpena 5 bloketan banatu zen:

1. Kirolaren Legea zergatik berrikusi behar den, zer prozesu jarraitu diren, non gauden eta zein izango diren hurrengo pausoak.
2. Zer esaten duen indarrean dagoen Legeak eta, batez ere, zergatik esaten duen.
3. Zertan eragin duen Euskadiko Tokiko Erakundeen Legeak (ETEL) <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/04/1601544e.shtml>, Kirolaren Legearen ondorengoa denak, eta Tokiko Administrazioaren arrazionalizazioa eta iraunkortasunaren Legeak zertan eragin duen https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2013/12/30/pdfs/BOE-A-2013-13756-E.pdf kirolaren gaian.
4. Berrikusketa-prozesuaren lehenengo fasean egin diren lanbileren laburpena, bereziki, udalerrien eskumenen gaiari dagokionez adierazietakoa.
5. Juantxo Landaberearen ikuspegia: Legearen berrikuspenak zertan oinarritu behar duen, zer akats dituen eta zer hobetza egin behar diren.



1. Gaur egungo egoera: zergatik da beharrezkoa Legea berrikustea

Eusko Jaurlaritzak, 2017ko otsailaren 28ko Gobernu Kontseiluan, 28 legeko Legegintza Programa bat onartu zuen hamaikagarren legegintzaldirako, eta, programa horretan, «Euskadiko Kirolaren 14/98 Legea eguneratzeko Lege Proiektua» jasotzen da [http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/10108/\(LISTADO-ZERRENDA\)_PROGRAMA_LEGISLATIVO_XI_LEGISLATURA.pdf](http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/10108/(LISTADO-ZERRENDA)_PROGRAMA_LEGISLATIVO_XI_LEGISLATURA.pdf)

Gobernu Kontseiluak honela arrazoitu du lege-proiektu hori Legegintza Programan izateko premia: 20 urte pasatu dira Legea onartu zenetik eta litekeena da Legearen zenbait alderdik era egokian ez erantzutea gaur egungo errealitatearen beharrei. Eusko Jaurlaritzak uste du agente sozial guztiekin gogoeta sakona egiteko prozesu bat ireki behar dela, ebaluatzeko Legearen zein alderdik funtzionatu duten eta zeinek ez. Era berean, Eusko Jaurlaritzak gogoeta sakona egin nahi du, batez ere, Euskadin hurrengo 20 urteetarako zer kirol-eredu nahi dugun jakiteko.

Berrikuspen-prozesua hasi da eta 9 lantaldetan banatu da. Lantalde horiek, diferentzia batzuk izan ezik, Legearen indarreko tituluekin bat datoz.

Bileretan ordezkari hauek guztiak izan dira: instituzio publiko guztietakoak, kirol-zerbitzuen enpresetakoak, elkargo profesionaletakoak, hainbat mailatako ikastetxeetakoak, EAEko Kirol Federazioen Batasunekoak, lurralde-federazioen elkarteetakoak, kirol egokituarenak, berdintasunaren alorreko espezialistak, etab. Ordezkaritza zabal bat nahi zen.

Bederatzi bileretan, aldaketa zehatzak eskatu badira ere, ez da egiaztatu aldaketa asko behar diren edo Legea sakonki erreformatu behar den.

2. Zer esaten du indarrean dagoen Legeak eta, batez ere, zergatik esaten duen

Eskumenaren gaiari dagokionez, 1998ko Legea eskumen-banaketa bat eratzen saiatu zen, hau da, Lurralde Historikoen Legean jasotzen zen kirol-arauketaren garapen eskasa osatzen zuen eskumen-

banaketa bat eratzen saiatu zen http://www.eudel.eus/es/documentos/estructura_y_organizacion_institucional_0/ficheros/ley_27_1983_de_relaciones_entre_instituciones_comunes_de_la_comunidad_autonoma_y_los_organos_forales_de_los_territorios_historicos_incluye_las_modificaciones_realizadas_por_la_ley_5_1993_de_16_de_julio

Idazketa hartan aurreko Legearen arazoak ebazten eta eskumen-alorreko akats teknikoak konpontzen saiatu ziren.

Egin zen banaketan, abiapuntu bezala, Legeak Institutio Komunei – Legebiltzarra eta Eusko Jaurlaritza– esleitu zizkien ia eskumen arauemaile guztiak, baita betearazteko eskumena ere, esaterako, goi-mailako kirolaren alorrean.

Lurralde Historietako foru-organoei hau guztia esleitu zitzaien, oinarrian: eskola-kirolaren, guztiontzako kirolaren araudia garatzeko eta betearazteko eskumena, Kirol Ekipamenduen Lurralde Plan Sektorialak onartzea, etorkizun oparoa duten kirolariak babestea, lurralde-federazioei eta klubei laguntza teknikoa ematea, koordinazio-funtzioa eta laguntza ematea udalerriei, etab.

Aurreko Legea indarrean egon zenean otsailaren 19ko 5/1988 Legea (kultura fisiko eta kirolari buruzkoa), eskumen-gatazka larri bat sortu zen eskola-kirolaren alorrean. Zehazki, 1989an, Gipuzkoako Foru Aldundiak kirolari buruzko foru-dekretu bat onartu behar zuenean, Eusko Jaurlaritzak foru-dekretu horren aurkako errekurtsioa jarri zuen, uste zuelako Lurralde Historikoetako foru-organoei ez zutela araudia garatzeko eskumenik eskola-kirolaren alorrean eta soilik eskumena zutela programak onartzeko. Legea indarrean zegoela gai hau argitzen saiatu ziren. Halaber, aukera hori aprobetxatu zen Lurralde Historikoetako foru-organoei esleitzeko lurralde-federazioen eraketa, estatutu-aldaketa, errebokazioa, etab. onartzeko eskumena, zeren finantzaketarako eta laguntza teknikorako soilik zuten eskumena.

Udalerriei –ez udalei, aurreko Legeak era okerrean zioen bezala– indarrean dagoen Legean esleitu zitzaien eskola-kirolaren eta guztiontzako kirolaren alorrean foru-programak betearazteko eskumena, foru-organoei koordinatuta. Era berean, udalerriei eskumenak eman zaizkie udalerrietako kirol-ekipamenduak eraiki, zabaldu, hobetu, kudeatu eta mantentzeko; udalerrietako kirol-ekipamenduen errolda onartu eta eguneratzeko; etab.

1998ko indarreko Legea 1988ko Legearen akatsak zuzentzen saiatu zen, esaterako, 1988ko legeak eskumen gisa jasotzen zuen berez betebeharra dena; hirigintza-legegintza betetzea kirol-ekipamenduetarako guneak erreserbatzeari dagokionez. Halaber,

udalerriek kirol-ikuskizunak antolatzeko zuten eskumena kendu zen. Ikuskizun horiek edozein erakunde publiko eta pribatuk antola ditzake, baita pertsona fisikoek ere.

Proposatzen du indarrean dagoen Legetik udalerriei emandako eskumen batzuk kentzea, adibidez:

- Kirol-ekipamenduen alorrean plangintza-tresnak onartu eta gauzatzea; izan ere, eskumen hori ez da berez kirol-eskumena eta berariaz dago jasota hirigintza-legerian eta toki-araubidearen edo tokiko erakundeen oinarrien legeria arautzailean.
- Udal-instalazioak kudeatzeko ordenantzak lantzea. Plangintza-eskumena bezala, ez da berez kirol-eskumen bat eta berariaz jasotzen da toki-araubidearen legerian udal-ordenantzak eta -erregelamenduak onartzeko ahalmena.

Juantxo Landabereak amaitzeko gogoratu zuen KAITek, 1997ko martxoaren 1ean Durango sinatutako dokumentu batean (indarrean dagoen 1998ko Legea onartu baino lehen), iritzi-dokumentu bat landu zuela udal-eskumenei buruz, termino hauetan: *«Bestalde, uste dugu etorkizuneko legeriak udal-egiturei paper operatibo handiagoa esleitu beharko liekeela kirol-sistemaren eremu guztietan, toki-administrazioen eskumen-banaketa birdimentsionatuz eta foru-organoei esleitzu aholkularitza- eta koordinazio-funtzio erreala eta efektiboa».*

3. Zertan eragin du Euskadiko Tokiko Erakundeen Legeak (ETEL) eta Toki-Administrazioaren arrazionalizazioa eta iraunkortasunaren Legeak kirolaren gaian

Bere interpretazioaren arabera, ETELe ez du eraginik izan kirolaren alorreko eskumen-banaketan, baina nabarmen eragin dezake kirolaren Legean eskumen-banaketari ukituak ematen bazaizkio.

Eskumen-mailei dagokienez, ETELen amaierako xedapenetan beste lege batzuk aldatu dira, baina kirolaren Legea ez da aldatu. Xedapen indargabetzaileetan ez da kirolaren Legeko atalik indargabetu. ETELen xedapen iragankorrean jasotzen da udal-erri guztiek jarraitzen dutela kontserbatzen sektore-legerian (kirolarena bada) aurrez esleitura zituzten eskumen berdinak. Laburbilduz, eskumen-alorrean ETELen ez da topatu gorabeherarik gaur egungo kirolaren Legean.

Etorkizunean eragin dezake kirolaren Legea aldatzen bada eskumen-banaketan. ETELe adierazten du udal-erriei berezko eskumenak



esleitzen dizkieten sektore-legeek eranskin espezifiko batean jaso behar dituztela beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak udalerrien nahikotasun finantzarioa ziurtatzeko eta aldi berean horrek ez ekartzeko gastu handiagoa administrazio publikoentzat.

Toki-administrazioaren arrazionalizazioa eta iraunkortasunaren legeak, halaber, memoria batean iraunkortasun finantzarioa jasotzeko betebeharra jasotzen du.

Legea indarrean den hogeitun urteetan ez bada eskumen-gatazkarik sortu maila instituzional desberdinen artean, era egokian neurtu beharko da gaur egungo eskumen-banaketa edozein aldaketa eta, legeak hala aginduta, edozein eskumen-aldaketaren ondorio finantzarioei buruzko ikerlan zabal eta zorrotzak landu beharko dira.

4. Eskumenaren gaiari buruzko lantaldearen balorazioa

Eskumen-banaketa landu duen 14/1998 Legearen II Tituluari buruzko lantaldearen lehenengo bileran planteatutako ideia batzuk:

- Oro har, uste da indarrean dagoen Legea egokia dela eskumen-banaketari dagokionez, ondo funtzionatu duela, ez duela eskumen-gatazkarik sortu, aurreko legearekin pasatu zen bezala eta, beraz, ez duela gaiari buruzko aldaketa handirik behar.
- Nahiz eta Legeak aurreikuspen arauemaille egokiak izan, hainbat aurreikuspen ez dira bete. Ez-betetze horren aurrean, lantaldean adierazi zen ez dela planteatu behar Legearen aurreikuspen horiek aldatzea, baizik eta betebeharrak hori betetzea bermatu behar dela. Hori da, esaterako, Kirol Ekipamenduen Lurralde Plan Sektorialen kasua, nahiz eta ez dituzten Lurralde Historikoetako foru-organismoek onartu, Legean mantendu beharko lirateke.
- Badirudi herritarren jardura fisikoak duen garrantziaren eta kirol formal, arautu eta lehiakorren arteko desoreka murriztu

behar dela. Indarrean dagoen legeak arreta handia jartzen dio lehiaketazko kirolari.

- Planteatu da kontzeptuak berrikusi egin behar direla terminologiaren aldetik eta genero-ikuspuntua hobetu behar dela.
- Era berean, beharrezkoa da toki-administrazioen betebeharrak eta baliabide finantzarioen arteko konpentsazio handiagoa. Krisi ekonomikoa era berezian pairatu dute beren ekipamenduek erreforma handiak behar dituztela ikusten duten eta herritarren jardura fisikorako behar berrien aurrean protagonismo nabarmena izan duten udallerriek.
- Goi-mailako kirolaren alorrean argitu egin beharko litzateke aldundi eta Eusko Jaurlaritzaren arteko eskumen-banaketa, nahiz eta legeak jasotzen duen goi-mailako kirola Eusko Jaurlaritzaren eskumena dela eta etorkizun oparoko kirolariena aldundiena dela.
- Lantaldearen arabera, aztertu eta hausnartu beharreko gai batzuk hauek dira: eskola-kirolaren ereduak, kirol-ekitaldiak antolatzeak araubidea arautzeko balizko betebeharrak, nahitaezko mediku-azterketen egokitasuna, etab.

Kirol-ekipamenduen alorrean indarrean dagoen Legeko arauketari dagokionez, lantaldeak hau adierazi zuen:

- Indarrean dagoen Legea, oro har, egokia dela eta Legea mantendu dadila defendatu zuen kirol-sistemari egonkortasuna emateko.
- Toki-administrazioen betebeharrak eta finantzazioaren oreka ere aztertu egin behar da kirol-ekipamenduei dagokienez.
- Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legetik eratorritako kirol-instalazioen segurtasunaren alorreko betekizunen eskakizuna arindu behar dela planteatu zen <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600033e.shtml>

Ikuskizunen legeak kirol-legeekiko osagarriak dira; beraz, kirolaren lege berri bat aukera bat izan daiteke irtenbideak txertatzeko ikuskizunen lege honek sortzen dituen arazoetarako.

5. Juanitxo Landaberearen ikuspegia Legearen berrikuspenak izan behar duenari buruz, zer akats dituen eta hobetu beharreko gauzak.

Legetik kenduko lukeena:

- Ondo funtzionatu ez duten eta beharrezkoak ez diren organo administratibo guztiak.
- Hirigintza-plangintzaren alorrean udalerrien eskumena eta beste lege batzuetan jasotzen diren eskumen guztiak.
- Eusko Jaurlaritzak kirol-ekipamenduetan hainbat alderdi arautu beharra (segurtasuna, eraikuntza-baldintzak, ingurumen-inkaktuak, etab.). 1996an, Legea landu zenean, ez zegoen orain gai honetan dagoen arau sektorial ugaria.

Aldatuko lukeena:

- Legeak erabiltzen duen terminologia.
- Eskola-kirolaren adin-bitartea, 6-16tik 0-16 pasatuz.
- Osasun-laguntza publiko eta doakoa zabaltzea, osasun-laguntza urgente eta espezifikoaren osteko laguntza barne, hori baita gaur egun publiko eta doako gisa onartzen dena.

Hau birpentsatu beharko litzateke:

- Federazio-sarearen dimentsionamendua.
- Medikuzko azterketaren derrigortasun orokorra. Jarduera zehatz batzuetarako mantendu daiteke. Mantentzea aukeratzen bada, araudia bete beharko da. Indarrean dagoen Legearen aurreikuspenak ez dira betetzen ari.

Ez litzuzke e-Sports izenekoak sartuko. Ez du uste jarduera fisikoa eta kirola, sedentarismoari, obesitateari eta antzekoei aurka egin nahi dien lege berdinak e-Sports izenekoak sustatu behar dituenik. Dena dela horrek ez du eragozten beste instantzia batzuek arautu ahal izatea.

Galderen txanda

*Mikel Bringas, Eusko Jaurlaritzaren kirol-
teknikaria*

Uste du Legearen aldaketa bat egingo bada, argitu behar den lehen gauza dela zer arautu behar den, eskumenak zein diren zehaztu baino lehen. Hau da, soilik kirolera mugatuko den, gaur egungoa bezala, edo jarduera fisikoa ere sartuko den.



Juantxoren erantzuna

Kirolaren Europako Hitzarmenak dio kirola edozein eratako jarduera fisikoa dela, bai antolatua, bai antolatu gabea, lehia-helburuekin, lehia-helbururik gabe, etab. Jarduera fisikoaren eta kirolaren aipamena sartzea, bere ustez, tautologia bat da. 1998ko Legeak oinarri gisa hartu zuen kirol-kontzeptuak, Kirolaren Europako Hitzarmenekoak, era oso zabalean, kirola edozein eratako jarduera fisikotzat jotzen du.

Juantxo Landaberearen ustez egin beharko litzatekeen beste gogoeta bat da ea kirol-jarduera libre, herritarrek era librean, borondatezkoan, bat-batean egiten duten jarduera fisikoa arautu egin behar den. Eta, hala bada, zer arautu behar da?

Argi du Legearen izenburua aldatzen bada eta, adibidez, Jarduera Fisiko eta Kirolaren Legea izango bada, kontsekuentea izan beharko dela eta organo guztien izenburua aldatu beharko dela, ez soilik Zuzendaritzarena. Kirolaren Euskal Kontseiluak Jarduera Fisiko eta Kirolaren Euskal Kontseilua izan beharko du, kirol-profesionalentzako legeek jarduera fisiko eta kirolaren alorreko lanbideak izan beharko dute, Kirolaren Euskal Eskola Jarduera Fisiko eta Kirolaren Euskal Eskola izango da, etab.

Ohartzen da nahi edo helburu bat dagoela Legeak ikusgai bihurtzeko ez soilik kirol- eta lehia-modalitateen arabera arautu, antolatu eta egituratutako jardueratzat hartzen den kirola. Baina Legearen ikusgarritasun formala baino beharrezkoagoa iruditzen zaio, Legeak eduki praktiko eta efektiboak izatea, hau da, jarduera fisikoa

sustatzeko esparruan gauzen egoera egiazki aldatuko duten edukiak izatea, onartu berri diren lege berri askoren erretorikatik aldentuz.

Nolanahi ere, adierazi du lehenik egin beharrekoa dela erabaki zer kirol-eredu nahi dugun datozen hogeitau urteetarako eta, batez ere, premia-printzipio batengatik, zein diren indarrean dagoen Legearekin dauden arazo errealak eta Lege berriak konpontzen saiatu beharko lukeenak.

Mikel Bringas

Kontua da egin duten hausnarketa batean 12 jarduketa-ildo identifikatu dituztela jarduera fisikoa sustatzeko, eta soilik bakarra dela kirolarena. Administrazioak ildo desberdinetan ari dira lanean.

Juantxo Landaberea

Uste du jarduketa horietako askok ez dutela zertan lege batean edo gehieneko arau-lerrun baten xedapen batean jasota egon behar. Anekdota gisa esan du horrelako ekintzak gauzatzeko iradoki diren arau-aldaketa gehienak Lege batean desegokiak direla, edozein eratara erregelamendu-mailako arauak dira edo, bestela, programetakoak.

Mikel Bringas

Baina kontua da beste abokatu batzuek ez dutela hori uste eta ohartarazten digutela zuhurtziaz ibili behar dugula, zeren jarduketa hauek ez baitira jarduera fisiko eta kirolaren eskumenekoak. Gure eguneroko jarduera arautuko duen oinarriko lege-testu baten babesa izatea oinarrikoa da.

Juantxo Landaberea

Jarduketa horietan, teknikariek lagundu egin behar diote Legea idatziko duenari oso ondo zehazten ustezko eskumen-arazo horiek, Lege berriak ebatz ditzan.

2. bertaratua

Bere gogoeta. Nolabaiteko beldurra ematen dio jendeak egin beharko ez lukeen kirola egiteak, praktika osasungarriak izan ala ez. Pertsona horiek kirol-instalazioetan egiten dute kirola eta kudeatzaile gisa tresna bat eduki nahiko luke egoera horiek kontrolatzeko eta bere ardura mugatzeko kudeatzailea den heinean.

Juantxo Landaberea

Horretarako, ez da aldatu behar indarrean dagoen Kirolaren Legea.

Gaur egun, indarrean dagoen legeriarekin, erakunde publiko edo pribatu baten onarpen-zerbitzuaren erregelamenduan, erabaki daiteke mediku-azterketa gomendatzekoa edo beharrezkoa izatea, profesionali prestakuntza zehatz bat eska dakieke, erabiltzaileei maila fisiko zehatz bat eska dakieke, etab. Ez da Lege berri bat behar kezka horri erantzun egoki bat emateko eta udalerriei jarduteko marjina zabal ematearen aldekoa da.

Mikel Hoyos

Uste du indarrean dagoen Legea oso ona dela, baina huts egiten duela ez delako betetzen. Bestalde, uste du kirolaren inguruan gehiegizko araudia dagoela kultura bezalako bestelako eremuekin erkatuz gero. Zergatik arautzen da horrenbeste kirola?

Laburbilduz, ez du uste legeak jarduera fisiko librea gehiago sustatu behar duenik, hori egiten baitu udalenak bezalako eskumenetan.

ETEL eta arrazionalizazioaren Legea eskumenetan eta horien finantzazioan ordena jartzen saiatu dira. Horiek bete egin behar dira, ordea, eta ekintza koordinatu batean lan egin.

PARTE HARTZEKO DINAMIKA: WORLD CAFÉ. «KIROLAK ESKUMENEN ARLOAN EUSKADIN DUEN EGOERA. GOGOETAK ETA PROPOSAMENAK»

1. mahai: LEGEA ALDATU EDO LEGE BERRIA?



Taldeak uste zuen Legea ez zela aldatu behar.

Kirol-klubak kirol-enpresa bihurtzen ari dira, langile kontratadunak dira, eskubideekin eta nolabait alda daiteke (ez da egin behar) errealitate hau sartzeko.

Lau ideia:

1. Kirol-klubek kirol-jarduerak eskaini behar dituzte bazkideentzat. Berez, ez da horrela eta pertsona asko daude bazkideak ez direnak. Hori arautu beharko litzateke nolabait.
2. Modalitate bateko zenbait klub berez duten jarduerarekin zerikusirik ez duten zerbitzu publikoak ari dira egiten («tenis-klub bat sorosle-zerbitzu bat ari da eramaten») edo kirol jarduerak ez diren bestelako jarduerak ari dira egiten, esaterako, kontzertuak.
3. Klubetakoak diren entrenatzaileen lan-kontratua. Zenbat irau dezakete edo irau behar dute kontratuek?
4. Unibertsitateko kirola: ez dute ikusten unibertsitateko kirolari legeak ematen dion ibilbidea. Ez dakite ordenatu beharko litzatekeen, argitu egin behar da estatuko ordenamendu akademikoaren arabera.

2. mahai: LEGEAREN PRINTZIPIO ZUZENTZAILEAK.

Hiru ideia:

1. Faltan botatzen dute kirolari buruzko definizio bat, legeak emango duena zer izango den jakite aldera.

2. Berrikuspen terminologiko bat egin behar da: minusbaliotasunaz hitz egiten da baina dibertsitate funtzionala duten pertsonak dira, emakumearen integrazioaz hitz egiten da baina erabat integratuta dago, SHEEz hitz egiten da baina Hezkuntza eta Kirol Fakultatea da.
3. Legean identifikatzen ez diren sektore asko daude: turismoa eta kirola, ekitaldi handiak, hirigintza eta kirola, bizitza aktiboa kirol gisa ere ez da agertzen.
 - Halaber, «botere publikoez» hitz egiten da baina ez da sakonki zehazten zein botere publiko aipatzen diren.

3. mahaia: GAUR EGUNGO ESKUMEN-AZTERKETA.

Taldean, oro har, ez da ikusi aldaketa handiak egin behar direnik. Eskumenak ondo banatuta daude erakunde desberdinen artean, baina legean jasotako betebeharrak bete behar dira. Adibidez, Lurralde Plan Sektorialak tresna on bat dira baina, egiatan, aldundiek ez dituzte gauzatu.

Antzeko zerbait gertatzen da zenbait organorekin, esaterako, Kirolaren Euskal Kontseiluarekin. Hainbat funtzio ditu, baina egiazki urtean behin elkartzen da eta ez ditu betetzen esleitutako funtzioak.

4. mahaia: GAUR EGUNGO ESKUMEN-AZTERKETA (errepikatu egiten du).

3. mahaiaren ondorioekin bat egiten du. Uste dute, gainjarri gabe, eskumen-eremu bakoitzerako legeak adierazten duena betetzen hasi beharko litzatekeela.

Bestalde, badirudi eskumenak gehiago zehaztu behar direla eta koordinazio handiagoa behar dela. Ez dute uste Legea aldatu behar denik, baldin eta alor bakoitzak esleitutako eskumenak betetzen baditu.

Sortu zen zalantzetako bat zen zeini egokituko litzazkiokeen jarduketa-eremu berriak. Planteatzen dute behatoki bat sortzea interesgarria izan daitekeela, behatokiak adieraz dezan jarduketa-eremu berriak zer diren eta arautu behar diren ala ez eta nori legozkiekeen jakiteko.

5. mahaia: ERAKUNDE-KOORDINAZIOA ETA ORGANOAK.

Proposamen batzuk egin dituzte:

1. Eskumen-hutsuneak, sortuko diren jarduketa-arlo berriak aztertuko dituen organo instituzional bat sortzea. Agian ona izango da batzorde motaren bat sortzea, adibidez, Kirolaren Euskal Kontseiluaren barnean, aztertu ditzan hutsune edo balizko hutsune horiek, egin beharko liratekeen ekintzak eta non esleitu eskumen horiek edo sor daitezkeen zalantzak argitu ditzan.
- Sustapen Olinpikoaren Euskal Kontseilua kentzea. Ez diote zentzu handirik ikusten.
2. Kirolaren Euskal Kontseilua pertsona gehiegik osatzen dute eta eraginkortasun gutxikoa da. Kontseiluaren barnean hainbat batzorde sortzeko aukera dagoela uste dute eta gaitasun ikuskatzailea eman beharko litzaiokeela; nahiz eta zalantza asko dituzten juridikoki posible ote den zehazteko; baina norbaitek gaitasun ikuskatzaile hori izan behar du.
3. Kirolaren Euskal Kontseiluaren eraketari dagokionez, legeak jasotzen du administrazio publikoek, kirol-federazioek eratuko dutela eta prestigio aitortua duten pertsonak gonbidatu daitezkeela. Uste dute, beharbada, Legea federazioek garrantzi handia zuten une batean idatzi zela. Une honetan beste agente batzuen ordezkari izan beharko luke, esaterako, Lizentziatuen Euskal Elkargoa, KAIT edo nominalki zerrenda horretan egon beharko luketen bestelako elkarteak.

6. mahaia: ZEHARKAKOTASUNA.

Lan egiteko eta lankidetz-formulak bilatzeko beste eremu edo sail batzuk identifikatzen saiatu dira.

Sail asko identifikatu dituzte: hezkuntza, osasuna, euskara, gizarte-zerbitzuak, enplegua, turismoa, berdintasuna, segurtasuna, mugikortasuna... pila bat.

Lankidetz-formulei dagokienez:

1. Eskola Kirolean Hezkuntza Saila inplikatu beharko litzateke baliabideak eskaini ditzan (ekonomikoak, pertsonala, instalazioak...) eskola-kirolaren planak garatzeko.

2. Hezkuntza Sailak, halaber, bere gain hartu beharko luke, haurrek jarduera fisikoa egiteari dagokionez, gutxieneoak betetzeko betebeharra. Puntu honetan, zalantzak sortzen ziren, ez ote diren kirolaren berezko funtzioak beste eremu batzuei esleitzen ari.
3. Osasun-sistemarekin erlazionatuta, honek jarduera fisikoaren ebaluazioa eta gomendioa bere gain hartuko luke. Horrek esan nahiko luke jarduera fisikorako orientazio-zerbitzua osasun-eremuan sartzea.
4. Oinezkoen eta bizikleten sareak txertatzea Aldundien lurralde-antolamendu planetan.
5. Lan-arloak sedentarismoaren aurkako programen sustapena txertatu beharko luke.

7. mahaia: ZEHARKAKOTASUNA (errepikatu egiten du).

Uste du zaila dela lege sektorial batek beste eremu batzuei betebeharrak ezartzea; izan ere, legeak, hain justu, sektorizatu egiten du.

Gatazkarik handiena eskola-kirolean dago, Hezkuntza Sailak parte-hartzeari dagokionez. Eskola-kirolaren bilakaera soilik kirol-araudi baten mende badago, era efektiboan eragiteko gaitasun gutxi dago. Eskola-kirolak ikastetxearen berezko jardueren artean egon beharko luke; horrela, klubek eremu honetan egiten duten indarra murriztuko litzateke.

Era berean, ikusi da araudi-mailan hori egokitu daitekeela, zeren nabarmena da alde handiak daudela eskola-kirola garatzerako orduan lurralde desberdinen artean.

Osasuna edo gizarte-zerbitzuak bezalako bestelako eremuei dagokienez, legeak transferentzia bat onartu beharko luke. Ulertzen du konplexutasuna, zeren kirola «balio anitzekoa» da eta ia beste eremu guztietan sartuko ginateke.

Laburbilduz, hiru kezka:

1. Administrazioen arteko koordinazio eraginkor bat behar da desorekak arautzeko.
2. Harremanak areagotu behar dira osasuna eta gizarte-zerbitzuekin.

3. Hezkuntzaren benetako partaidetza eskola-kirolean.

8. mahaia: GOBERNANTZA PUBLIKOA.

Hiru ideia:

1. Ideia nagusia: Partaidetza-prozesuetan administrazioek eta herritarrek duten papera argitu behar da. Politikariek erabakiak azaldu eta argudiatu behar dituzte. Horren ondoren, bakoitzak bere gain hartu beharko ditu partaidetza horren ondoren lortutako emaitzak eta hartutako erabakiak.
2. Herritarren aholku kontseiluak bezalako figurak kontuan hartzea; izan ere, herri batzuetan (Errenteria) plangintza estrategikoaren segimendua egiten du eta plangintza berrikusten du.
3. Legean jasotako eskumenei dagokienez, ikusten da udal-eskumenak ondo jasota daudela baina finantzazioa falta dela horietarako.

9. mahaia: GOBERNANTZA PUBLIKOA (errepikatu egiten du).

Gobernantza legerian sartu behar den ala ez eztabaidatu dute, nola sartu beharko litzatekeen eta zein erakundek aplikatu beharko luketen.

Ondorioztatu dute Gobernantza ukiezin bat dela, eredu bat, estilo bat, balio bat; beraz, ez da egokia horren inguruko legeak egitea edo erakundeak horretara behartzea. Baina, betebeharrak gisa txertatu gabe, printzipio zuzentzaileetan txertatu beharko litzateke, erakundearteko lankidetzak, berdintasuna edo kohesio soziala dauden bezala.

Uste dute era laburrean sartu beharko litzatekeela, zeren badaude garatzen duten beste lege batzuk.

Gobernantza administrazio guztietan sartu behar da, baina bakoitzak duen gaitasun eta politikaren baitan.



Txostenaren idazketa:

murua
activepeople activecities
www.murua.eu